

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.
Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

OSASUN LAGUNTZA ETA OSASUNA

Aurrerapen gisa, 2003. urtean ospitale-sektoreak zituen datu azpimarragarrienak laburtu ditugu:

Euskal Autonomia Erkidegoan 44 ospitale zeuden (aurreko urtean baino bat gutxiago); eta hauetan 7.985 ohe zeuden, hau da, %1,5 gutxiago. Ospitaleratze-esparruko oinarritzko adierazleen arabera, ohe bakoitza gehiagotan erabili da: okupazio-indizea gehitu da (%81,9tik %82,3ra), ohe bakoitzean arreta eman zaion gaixo kopurua gehitu da (33,5etik 34,7ra 2003. urtean) eta ospitaleetako batez besteko egonaldiak gutxitu egin dira (2002. urtean 8,9 egun eta 2003an 8,7 egun).

Azken urteetako gehitzeko joera horrekin jarraituz, erditzeak %5,8 gehitu ziren eta ume bat baino gehiagoko erditzeak %12,9.

Larrialdietan arreta ematen zaien kasuen kopurua %4,3 gehitu zen, aitzitik gaixoa ospitaleratzea behar izan zuten larrialdien ehunekoa (%13) jaitsi egin zen.


Kanpoko kontsultak 2,1 milioira igo ziren, hau da, %4,1 gehitu ziren; izan ere, 2003. urtean larrialdien ostean gehien gehitu ziren asistentzia-jarduerak hauenak izan ziren.

Ebakuntza kirurgikoak %2,3 gehitu ziren, baina anbulatorioko kirurgia handiek are gehikuntza handiagoa izan zuten (%4,6).

Ospitaleetako osasun-gastua 1.318 milioi euroraino igo zen, aurreko urtean baino %7,4 gehiagorekin geldituz. Beraz, gastu hori ondoz ondoko hirugarren urtez Euskal AEn BPGaren gehikuntzatik (%5,1) gora gelditu zen.

Ospitaleetako osasun-sektorean 19.887 langile izan ziren (aurreko urtean baino 171 gehiago), Euskal Autonomia Erkidegoan lanean zeuden

Ospitaleetako asistentzia-jardueraren bilakaera Euskal Aen



GAIA/ASIGNATURA	Matematika
MAILA/CURSO	4.DBH
IKASTETXEA/CENTRO	Amazabal Leitza
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Matematika
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Alicia Zabaleta
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Eusko Jaurlaritzako estadistika saila
IZENBURUA/TÍTULO	Osasun laguntza eta osasuna
ARGITALETXEA/EDITORIAL	
URTEA/AÑO	2008
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	1
ISBN	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/SOPORTE	Texto impreso
FORMATOA/FORMATO	Mistoa
MOTA/TIPO	Azalpen testua
ERABILERA/USO	Esparru publikoa
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<ul style="list-style-type: none"> -Irakurketaren helburua informazio zehatza lortzeko izango da eta beste pertsona bat informatzeko modukoa. -Testuaren aurrean, hipotesiak garatuko dira izenburua eta grafikoak ikusita : zertan datza gure irakurketa -Hizkuntza matematikoen azpimarraketa: ehunekoak... -Berriazko lexikoa ezagutzea: ospitale-sektoreak, osasun-gastuak, okupazio-indizea... -Aurretiko ezagutzak aktibatzea: ehunekoaren esanahia,

		kalkulua,...
IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA		Bakarkako irakurketa globala egin ondoren, laburtze partzialak egingo ditugu : testua hiru zatitan banatuko dugu errezago ulertzeko hainbeste ehuneko ematen duten informazio konparatiboa. (ulermena errezteko gomendatzen da 2002 eta 2003 urteko datuak bereiztea kolore desberdinekin)
IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA		+Testuen laburpena taula estatistiko baten bidez egingo dugu eta horrela osatuko dugu: -Lehenengo zutabea osasun-sektoreak ipini -Bigarren eta hirugarren zutabea 2002 eta 2003 urteko datuak jarriko ditugu (taula betetzeko erabil daiteke grafikoan emandako informazioa) +Interpretatu jaso diren datuak: -Okupazio indizea handitu baino egonaldiak murriztu. -Diru laguntzaren igoera beste urteetan baino baxuagoa baino gaixo kopurua igotzen? zergatik? -Badirudi hartu duten politika gastu sanitarioa murriztea dela. Zergatik ?
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES		
Informazioa bilatzea edo eskuratzea	1.	Zein da gure ikerketaren tamaina, zenbat ospitaleek ikerketan parte hartu dute?
	Erantzuna	<i>44 hospitaletan hain zuzen ere, iaz baino bat gutxiago.</i>
	2.	Textu honetan datu batzuk alderatzen dira, zein urteko informazioa ematen dute eta zein urtekin alderatzen dute?
	Erantzuna	<i>Datuak 2003koak dira eta 2002koekin alderatzen dira.</i>
Ulermen orokorra	1.	Zein da Eustaten helburua informe honekin?
	Erantzuna	<i>Gizarteei jakin araztea osasun-laguntzak murrizten ari direla(diru gutxiago, ohe gutxiago, langile gutxiago, ospitaleetako egonaldiak murriztu...) eta aldiz, gaixo kopurua igotzen. Zalantzak jartzen dute zerbitzuaren kalitatea murrizten ari den baina testuan ez da ezer adierazten. Guk informazioaren irakurketa kritikoa egiten badugu baietz pentsatuko genuke.</i>
	2.	Jarri titulu egokiagoa testuari esan nahi duena kontutan hartuz.
	Erantzuna	<i>Erantzun irekia, baina posible bat: Osasun alorrean behar gehiago eta baliabide gutxiago.</i>

Interpretazioa	1.	Datuak irakurri ondoren, esan daiteke jendea gero eta gehiago joaten dela larrialdi zerbitzuetara gero eta larritasun gutxiagoko duten kasuekin? Zergatik?
	Erantzuna	<i>Bai, adirudi egia dela gero eta gehiago erabiltzen direla larrialdietako zerbitzuak, baina ospitalizazio portzentaiak behera egin badu osasun arazoak arinago direla da. Ondorioz, arrazoizkoa da egindako baieztapena.</i>
	2.	Orrialde honetako grafikoan ez da ematen Y ardatzean idatzitako datuak zein eskalatan ematen diren. Ezaidazu zein den eskala hori eta nola jakin duzun?
	Erantzuna	<i>Grafikoan ardatzek ez dute eskalarik adierazita, baina datuak testuarekin alderatzen badira argi geratu beharko litzateke milaka direla. Adibidez, 2,1 milioi kontsulten datua 2.100 eskalan islatu da. Hau da, balio errealak ikusteko eskalan irakur daitezkenak 1.000 zenbakiarekin biderkatu egin behar dira ; (1:1.000) eskala.</i>
Edukiaren gaineko hausnarketa	1.	Datuak ikusita, 2002.urtean kanpoko zenbat kontsulta izan ziren?
	Erantzuna	<i>2003an kanpoko kontsultak 2,1 milioira iritsi ziren eta % 4,1eko gorakada izan zuten 2002ko kopuruarekiko. Beraz, 2002an %4,1 gutxiago izan ziren kanpo kontsulta. Modu honetan, 2002ko kanpo kontsulten kopurua ondorengo da: $2.100.000 \times 0,959 = 2.013.900$ kontsulta.</i>
	2.	Grafikoan ematen diren datuen arabera, ospitaleratutakoen artean zein ehunekori egin zitzaion ebakuntza 1998 eta 2002 urtean? Aldea nabarmena da?
	Erantzuna	<i>Datuak grafikoan irakurri behar dira. 1998: ospitalizazioak, 255.000; ebakuntzak 190.000. Beraz, $(190.000/255.000) \times 100 = \%74,5$ 2002: ospitalizazioak, 275.000; ebakuntzak 200.000. Beraz, $(200.000/275.000) \times 100 = \%73$. Ez dago alde handirik, ba.</i>
Formaren gaineko hausnarketa	1.	Zer esan nahi dute ondorengo testuan agertzen diren honako siglek: BPG eta EAE-k?
	Erantzuna	<i>BPG: Barne-produktu Gordina. EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.</i>

	2.	Testuak ematen duen informazioa nahikoa dela edukia ondo ulertzeko uste duzu? Zergatik?
	Erantzuna	<p><i>Informazio eskasa da.</i></p> <p><i>Zenbait datu inferitu behar dira:</i></p> <p><i>* Testuak ematen diren datuak erabilia: 2002ko kanpoko kontsultak, 2002ko osasun gastua...</i></p> <p><i>* Grafikoan ematen diren datuak erabilia: 1995-1996, 1996-1997 eta 1997-1998 urtetako kontsulten ehunekoa, ebakuntzen ehunekoa, larrialdien ehunekoa eta ospitalizazioen ehunekoa.</i></p>
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES		